

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNU SAILA

4288

AGINDUA, 2024ko uztailaren 30ekoa, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuarena, Eusko Jaurlaritzak balio publikoa batera sortzeko proiektu berritzaileetarako antolatzen dituen «Elkarlan» sarien hamargarren deialdia onesten duena (2024. urtea).

2020-2024 Gobernu Programako konpromisoetako bat da «administrazio irekiagoa eta gardenagoa bultzatzea, kontuak denbora errealean ematen dituen» eta ekimenetako batzuk hauek: «gobernu irekiaren eta nazioarteko aitortzaren estrategia bultzatzea. Erreferentziako nazioarteko erakundearekin lankidetzan aritzea, Gobernu Irekiaren aldeko Aliantzarekin (OGP), gobernu irekiagoak, arduratsuagoak eta herritarrekiko sentikorragoak sustatzeko tresnak garatzeko eta ebaluatzeko», eta «herritarren parte-hartzea areagotzea eta haiek emandako iritziak modu aktiboan entzutea, eta kudeaketa publikoa denbora errealean informatzeko eta ebaluatzeko prozesuan adierazle-sistema birdiseinatzea.»

Gobernantza publikoa lortzeko ahaleginean, Gobernantzaren, Berrikuntza Publikoaren eta Gobernu Digitalaren Plan Estrategikoak (Ardatz 2030) balio publikoa sortu nahi du, erronka honekin: administrazio publikoaz gain, herritarrak ere gobernantza horren eragile izatea, zentzu zabalenean: herritar antolatuak eta antolatu gabeak, eragile ekonomikoak eta sozialak, eta abar.

Gai publikoetan herritarren parte-hartzea eta lankidetzak bultzatzeko konpromisoa, Euskadiko demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Liburu Zuriari lotuta dagoena, 2015., 2016., 2017., 2018., 2019., 2020., 2021., 2022. eta 2023. urteetan gauzatu zen, Eusko Jaurlaritzak balio publikoa batera sortzeko proiektuetarako antolatzen dituen «Elkarlan» sarien deialdien bidez, eta hamargarren edizio honen bidez berriz egiten da deialdia, xede izanik herritar antolatuek eta antolatu gabeek aurkeztutako proiektu berritzaileak saritzea. Proiektuok balio publiko partekatua sustatu eta gizarteko erronkak eta beharrak ase behar dituzte sei jarduera-eremu hauetakoren batean: osasuna, ingurumena, garapen ekonomikoa, ikasketa eta kultura, kohesio soziala; eta gobernantza, kultura demokratikoa eta erabaki publikoetako parte-hartzea.

Halaber, proiektuek, diseinu- eta ezarpen-fasean, pertsonen eta kolektiboen ahalduntze-prozesuak sustatzeko gaitasuna erakutsi beharko dute, funtsezko ezaugarri gisa.

Hamargarren edizio honen bidez (aurrekoetan bezala) lortu nahi da balio publikoa batera sortzeko proiektu berritzaileari saria ematean proiektua bera eta sustatzaileak ezagutzera ematea; baina, beste alde batetik, beste eragile batzuen parte-hartzea izateko formulak ekartzea, Euskadin pixkanaka osatu dadin balio publikoa batera sortzen ikasteko eta arlo horretan elkarlanean aritzeko sare bat. EAEko 7 administrazioek (Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta 3 hiriburuetako udalek) eta Innobasque-Berrikuntzaren Euskal Agentziak, Gobernu Irekiaren aldeko Nazioarteko Ituneko kide direnez, 2018-2020 OGP Euskadi ekintza-planean ezarri duten 3. konpromisoari lotuta dago ikuspegi hori. Izan ere, konpromiso hori betetzeko, herritarren parte-hartze berritzailearekin konpromisoa hartuko duten eragileak eta proiektuak sustatu behar dira.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren 2024. urterako dirulaguntzen plan estrategikoan –2024ko martxoaren 8ko Aginduaren bidez onartua eta Legegunea-Euskal Araudiaren Atarian argitaratua– sartu da deialdi hau, bertan berariaz ezartzen baita «Elkarlan» sarien deialdiak egingo direla 6. helburu estrategikoari lotuta: «Administrazio publikoek herritarren ekimenak sortutako balio publikoa aitortzea, ekimen hori erakundeen laguntzarekin edo gabe sortu bada ere, eta bi aldean

2024ko irailaren 17a, asteartea

ekimenei koherentzia ematen saiatzea, Ardatz 2030en barruan gobernu irekiaren arloko erronka gisa, eta Euskadirako Gobernu Irekiaren aldeko Nazioarteko Aliantzaren I. Ekintza Planaren esparruan». Legegunea-Euskal Araudiaren Atarian argitaratu da plana. 2024ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan badago deialdi honetarako aurrekontu-kreditu nahikoa.

Gobernu Irekiaren Zuzendaritza da ekimen horiek bultzatzearen arduraduna; izan ere, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 13.1 artikulua b) apartatuak egiteko hau esleitzen dio: «gardentasuna eta herritarren parte-hartzea bultzatzea politika publikoen definizioan, kudeaketan, gauzatzean eta ebaluazioan», eta, artikulua e) apartatuak, berriz, egiteko hau esleitzen dio: «herritarrek parte hartzeko eta euren proposamenei erantzun instituzionala emateko bideak sustatzea».

Azaldutako guztia kontuan izanda, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuak laugarren xedapen gehigarrian, lehenengo xedapen iragankorrean eta azken xedapenetako lehenengoan ezarritakoarekin bat etorriz, eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 3. artikulua ondoz,

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Eusko Jaurlaritzak balio publikoa batera sortzeko proiektu berritzaileetarako antolatzen dituen «Elkarlan» sarien 2024ko deialdia (hamargarrena) onartzea, onartzen diren eta agindu honen eranskinean jasota dauden oinarri arautzaileen arabera.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Sariak, beren izaeraren arabera egoki den guztian, honako hauetan xedatutakoaren mende egongo dira: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea; eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legea.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuari, hilabeteko epean, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan ezarritakoaren arabera. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, eta, horretarako, bi hilabete izango dira, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatzen baita Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10.1.a) eta 46. artikuluetan.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko uztailaren 30a.

Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburua,
MARÍA UBARRECHENA CID.

ERANSKINA

EUSKO JAURLARITZAK BALIO PUBLIKOA BATERA SORTZEKO PROIEKTU BERRITZAILEETARAKO ANTOLATZEN DITUEN «ELKARLAN» SARIEN HAMARGARREN DEIALDIA, 2024. URTERAKO. OINARRI ARAUTZAILEAK

Lehenengoa.– Xedea.

Deialdi honen xedea da lau proiekturi sari bana ematea, balio publiko batera sortzeko proiektu berritzaileak ezagutzera emateko. Proiektu horiek eragina izan behar dute jardun-arlo hauetan: osasuna; ingurumena; garapen ekonomikoa; ikasketa, kultura; kohesio soziala; gobernantza, kultura demokratikoa eta erabaki publikoetan parte-hartzea. Eta, horrez gain, balio publiko partekatua modu berritzailean sustatu behar dute, gizartearen beharrak eta erronkak ase behar dituzte, eta, diseinu- eta ezarpen-fasean, pertsonen eta kolektiboen ahalduntze-prozesua sustatzeko gaitasuna erakutsi behar dute.

Halaber, sariak ematen dira proiektuko jardunbide egokiak (parte hartzeko eta balio publiko konpartitua sortzeko pertsonen eta kolektiboek duten ahalduntzea aktibatzen moduei lotutakoak) beste eragile batzuei transferitzeko prozesua formalizatzeko. Herritarrek parte hartzeko jardunbide egoki horiek lurraldeko beste eremu edo espazio batzuetan ere aplikatzeko modukoak izan behar dira.

Bigarrena.– Sariak.

Balorazio onena izan duten lau proiektuetako bakoitzari emango zaio saria, honako esparru hauetan: osasuna, ingurumena, garapen ekonomikoa, ikasketa-kultura, kohesio soziala eta gobernantza, kultura demokratikoa eta parte hartzea erabaki publikoetan. Deialdiaren zuzkidura ekonomikoa 36.000 eurokoa da guztira, eta zenbateko hori Euskal Autonomia Erkidegoko 2024ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorretan onartu zen.

Hona hemen sarien prestazioak:

a) 6.000 euro gordin emango dira, parte-hartzea sustatzeko modu ezberdinak aplikatzeko aukera ematen duen balio publiko batera sortzeko proiektu berritzailea aitortzeko.

b) 3000 euro gordin emango dira, herritarren parte-hartzearen bidez pertsonen eta kolektiboek duten ahalduntzea aktibatzen jardunbide egokiak beste eragile batzuei transferitzeko prozesua gauzatzeko egin behar den lana aitortzeko, lurraldeko beste eremu edo espazio batzuetan.

c) Kanpoko aholkularitza, beste eragile batzuei transferitzeko prozesuan zehar, lurraldeko beste eremu edo espazio batzuetan aplikatzeko.

d) Saritutako proiektuari zabalkundea emango zaio komunikabide eta hedabideetan.

Hirugarrena.– Proiektuak bete behar dituen baldintzak.

1.– Proiektu guztiek, deialdian parte hartzeko, baldintza hauek bete beharko dituzte eskabidea aurkezteko unean:

a) Ezarrita egotea edo fase pilotu aurreratuan egotea. Ez dira onartuko hasi gabe dauden proiektuak edo ideia-fasean daudenak.

b) Elkarlanean parte hartzeko proiektua izan behar da, hots, gizarteak jarduteko duen gaitasuna erakusten duten ahalduntze-prozesuak sustatzen dituzten ekimenak.

c) Balio edo inpaktu publiko eta soziala sortu behar du berrikuntzaren bidez.

d) Euskadiko demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Liburu Zurian identifikatutako jardun-eremuetakoren batean edo batzuetan gauzatu behar da, herritarren parte-hartzeak eta ikuspegiak esparru horien garapenean egin baitezakete ekarpenik handiena: osasuna, ingurumena, garapen ekonomikoa, ikasketa-kultura, kohesio soziala eta gobernantza, kultura demokratikoa eta parte hartzea erabaki publikoetan. Proiektu bera, jardun-eremu bati baino gehiagori buruzkoa izan badaiteke ere, behin bakarrik aurkeztu ahal izango da, eta jardun-eremu bakar bati lotuta.

e) Pertsonen edo kolektiboen ahalduntze prozesuak aktibatze modua lurraldeko beste eremu edo espazio batzuetara eramateko modukoa izan behar da. Horretarako, honako hauek baliatuko dira: jarduteko protokoloak, tresnak, metodologiak, gidak, web euskarriak, prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekintzak...

2.– Sariak jasotzeko hautagai juridikoek nahi beste proiektu aurkeztu ahal izango dituzte beste hainbeste eskabidetan, baina sari bakarra lortu ahal izango dute.

Laugarrena.– Hautagaitzak.

1.– Eskabidea aurkezteko unean jarduera nagusia Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatzen duten eta egoitza fiskala bertan duten irabazi asmorik gabeko pertsona juridikoak soilik aurkeztu daitezke deialdi honetara.

2.– Administrazio publikoek eta haren sektore publikoa osatzen duten entitateek ezin izango dute parte hartu sarien deialdi honetan.

3.– Pertsona juridikoek honako baldintza hauek bete beharko dituzte eskabidea aurkezterakoan:

a) Egoitza fiskala Euskal Autonomia Erkidegoan izatea eta bertan gauzatzea jarduera nagusia.

b) Egunean izatea zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Horretarako, organo kudeatzaileak zuzenean eskuratuko du egiaztapena ziurtagiri telematikoen bidez. Hala ere, eskaera egiten duen pertsona juridikoak espresuki ukatu ahal izango du baimen hori, eta, hala eginez gero, ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 4.f) artikuluan adierazi bezala.

c) Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta edukitzea.

d) Ez izatea administrazio- edo zigor-zehapenik, laguntza edo dirulaguntza publikoak lortzeko aukera kentzen dionik, eta ez izatea laguntza horiek jasotzeko legezko debekurik.

e) Ez izatea administrazio- edo zigor-zehapenik, sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik.

f) Berdintasun-plana indarrean izatea, Estatuko araudiaren arabera nahitaez eduki behar duten enpresei dagokienez.

g) 50 langile baino gehiagoko enpresei dagokienez, sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta sexu-indarkeria prebenitzeko eta borrokatzeko neurriak ezarri izana egiaztatzea, Estatuko legerian ezarritakoaren arabera.

h) Ezingo dira sariaren onuradun izan Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan aurreikusitako inguruabarretako batean dauden pertsona juridikoak.

Aurreko a), c), d), e), f), g) eta h) betekizunei dagokien agiri-egiaztapenaren ordeztasunarekin, eskatzaile juridikoek erantzukizunpeko adierazpena beteko dute, «Elkarlan» sariaren deialdian parte hartzeko inprimakian. Inprimakia Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko helbide honetan eskura dezakete: www.euskadi.eus/zerbitzuak/1027610

4.– proiektuak aurkeztuko dituzten pertsona juridikoek Eusko Jaurlaritzari baimena emango diote deialdi honekin lotutako hedapen-jardueretan beren egiletza aipatzeko. Horrek ez die, hala ere, eskubide ekonomikorik edo beste irabazi-motarik ekarriko, sariak dakartzan zenbateko ekonomikoaz eta prestazioaz gain.

5.– «Elkarlan» saria ematea bateragarria da beste administrazio publiko batek edo erakunde pribatu batek emandako sari batekin, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 9.4.h artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Bosgarrena.– Hautaketa Batzordea.

1.– Hautaketa Batzorde batek baloratuko ditu proiektuak, eta kide hauek osatuko dute batzorde hori:

- a) Miren Martiarena Barcaiztegui, Gobernu Irekiaren zuzendaria (batzordeburua izango da).
- b) Miren Matxalen Lauzirika Jauregi, Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako zuzendaria.
- c) Javier Latorre Guinea, Gardentasun Arloko teknikaria; idazkari-lanak ere egingo ditu.
- d) Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino, Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzako Gobernu Onaren ataleko berrikuntza publikoari buruzko proiektuen arduraduna eta OGP Euskadi proiektuaren arduradun teknikoa.
- e) Jon Hidalgo Mugica jauna, Lurgua Fundazioaren ordezkaria, «Elkarlan» 2023ko sariaren deialdian saritua. Ordezkoa: Sergio Gallego Mazarias jauna.
- f) Ramón Tejada Arranz jauna, Argia Fundazioaren ordezkaria, «Elkarlan» 2023ko sariaren deialdian saritua. Ordezkoa, Nerea Loizaga Barañano andrea.
- g) Irune de la Maza Olagorta andrea, Euskarabentura-Euskara eta kultura gazteengan sustatzeko elkartearen ordezkaria, «Elkarlan» 2023ko sariaren deialdian saritua. Ordezkoa, Alaitz Elizburu Agirre andrea.
- h) Connie Boulandier Ciruelos andrea, Getxoko kanoa klubaren ordezkaria, «Elkarlan» 2023ko sariaren deialdian saritua. Ordezkoa, Luzma Somarriba Gándara andrea.
- i) Gotzon Bernaola Ariño, Innobasque herri-onurako elkartearen Enpresa Berrikuntzako koordinatzaile nagusia.
- j) Goizalde Atxutegi andrea, Innobasque herri-onurako elkartearen Enpresa Berrikuntzako proiektuen arduraduna.

2.– Eusko Jaurlaritzakoak ez diren pertsonak Hautaketa Batzordeko kide izateak eta batzordearen bileretara joateak eskubidea sortuko du dieta gisa zenbateko bat jasotzeko, kontzeptu hauengatik: bileretara egin beharreko joan-etorriengatik (erabilitako garraio bidearen kostu erreala araberakoa izango da dieta); Hautaketa Batzordearen bileretara joateagatik (60 euro, bilera bakoitzeko) eta lan-saioetan taldean baloratzeko aurkeztutako proiektu bakoitzari egindako analisi eta balorazioengatik (60 euro, aztertutako 10 proiektuko).

Seigarrena.– Baremoa.

1.– Lor daitekeen gehieneko puntuazioa 12 puntukoa da.

2.– Hautaketa Batzordeak baloratuko ditu aurkeztu diren proiektuak, gehienez 10 puntu emanez, baremo honen arabera:

a) Balio publiko eta soziala: balio publikoa sortzeko ahalmena (gizarte-inpaktu handikoa), eta kolektibotasunetik lagunduz egitea. Administrazio publikoek behar bezala estaltzen ez dituzten premiak edo arazoak asetzeko egiten duen ekarpena baloratuko da, eta hori herritarren lankidetzatik gauzatzea. 0 eta 1 puntu bitartean emango dira, 2 hamartarreko tarteekin, 0,05etik 0,95era bitartekoak izan daitezkeenak).

b) Ahalduntzea: gizarteak antolatzeko eta jarduteko duen gaitasunaren eredia sortzeko ahalmena. Herritarren lankidetzaz piztea nola lortu den baloratuko da –jarduteko lankidetzaz–, baita beste testuinguru batzuetan aplikatzeko aukera ere. 0 eta 3 puntu artean emango dira, 2 hamartarreko tarteekin, 0,05etik 2,95era bitartekoak izan daitezkeenak.

c) Izaera berritzailea: proiektuko ideien (disruptiboa eta berria) egingarritasun eta berrikuntzarako ahalmena. Baloratuko da berrikuntzarik eragiten duen eta, horretarako, lehendik dauden elementuak aldatzen dituen, hobetzeko, edo guztiz berriak diren elementuak sartzen dituen. 0 eta 2 puntu artean emango dira, 2 hamartarreko tarteekin, 0,05etik 1,95era bitartekoak izan daitezkeenak.

d) Pertsonen edo kolektiboen ahalduntze prozesuak aktibatze modua lurraldeko beste eremu edo espazio batzuetara eramateko aukera. Baloratuko da, batetik, zenbat pertsona edo kolektibori transferitu dakiokkeen proiektua, eta, bestetik, zer lurralde-hedaduratan aplikatu daitekeen (herria, probintzia, autonomia-erkidegoa, etab.). 0 eta 2 puntu artean emango dira, 2 hamartarreko tarteekin, 0,05etik 1,95era bitartekoak izan daitezkeenak.

e) Diseinuan eta ezarpenean genero-ikuspegia txertatzea. Baloratuko da proiektuetan jasotzea gizonen eta emakumeen arazoaren aurrean duten pertzepzio desberdina, bi generoen behar desberdinak asetzen direla, eta lehendik dauden desparekotasun-egoerak edo diskriminazioak errepikatzea edo beste batzuk sortzea saihesten dela. 0 eta 1 puntu bitartean emango dira, 2 hamartarreko tarteekin; 0,05etik 0,95era bitartekoak izan daitezke.

f) Kalitatea eta argitasuna: aurkezpenaren koherentzia- eta argitasun-maila. 0 eta 1 puntu bitartean emango dira, 2 hamartarreko tarteekin, 0,05etik 0,95era bitartekoak izan daitezkeenak.

3.– Batzordearen balorazioa osatzeko, gainera, parte-hartze prozesua abiaraziko da Irekian (<https://www.irekia.euskadi.eus/eu/debates>). Horren bidez, herritarrek gehienez lau proiekturi eman ahal izango diete botoa. Inskripzio-eskabidean, inprimakiari erantsitako dokumentazio gehigarria argitaratzeko baimena eskatuko da. Argitaratzeko baimenik ematen ez bada, eskabidearen inprimakia soilik argitaratuko da, anonimizatuta. Boto gehien jaso dituzten lau proiektuei beste bi puntu emango zaizkie, eta bi puntu horiek Hautaketa Batzordeak emandako balorazioari gehituko zaizkie.

4.– Gutxienez 5 puntu lortu behar dira saria jasotzeko aukera izateko.

Zazpigarrena.– Prozedura.

1.– Deialdi honetan parte hartzeko, hautagai den pertsona juridikoak bide elektronikoa erabili behar du organo kudeatzailearekin harremana izateko.

2.– Deialdi honen organo kudeatzailea Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Saileko Gobernu Irekiaren Zuzendaritza da.

3.– Hautagai diren pertsona juridikoek bete behar duten eskabidearen eredia Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoen www.euskadi.eus/zerbitzuak/1027610 helbidean dago eskuragarri. Bide elektronikoa erabiliko da eskabidea aurkezteko. Seigarren oinarriko 2. apartatuan zehazten diren sei alderdiak jaso beharko dira eskabidean, balorazioa behar bezala egin ahal izateko. Zehazki, d) apartatuari dagokionez, ondo zehaztu beharko da a priori nola formalizatuko den pertsonen edo kolektiboen ahalduzko prozesuak aktibatuzko jardunbide egokiak beste eragile batzuei transferitzeko prozesua, lurraldeko beste eremu edo espazio batzuetan aplikatzeko. Kasu horretan, jardunbide egokizat joko dira modu berritzaile eta egokian parte-hartzea bultzatzen duten ezarritako jarduerak edo esperientziak. Hau da, beste esperientzia batzuei ekarpen handia egin ahal dieten ikasketak eta ezagutzak. Transferentzia formalizatuzko, garapen kontzeptual bat sar daiteke, orientazio gisa, honako hauek identifikatzeko: jardunbide egokia zertan datzan, arrakasta-baldintzak, ekarpenak (emaitzak eta inpaktuak), mugak, beste testuinguru batzuetan aplikatzeko bideragarritasuna...; material dokumentalak (gidak), grafikoak edo teknologikoak sortzea, transferentzian laguntzeko; garatutako kontzeptuak eta materialak hedatzeko eta zabaltzeko prozesu parte-hartzaileak egitea, eta abar. Beste eremu eta espazio batzuetara transferitzeko aukera ematen duen guztia identifikatu daiteke bertan. Prozesua 6 hilabeteetan garatu behar da, sariak ematen direnetik; eta Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailean barruan gobernu irekiaren eskumena duen Zuzendaritzak kanpoko aholkularitza eskainiko du horretarako.

4.– Eskabidea aurkeztu ondorengo izapideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bidez egingo dira: <http://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

5.– Hautagai diren pertsona juridikoek euskaraz edo gaztelaniaz aurkeztu ahal izango dituzte eskabidea eta horri erantsitako agiriak; hots, eurek aukeratzeko erabiliko da prozedura osoan, Euskararen Erabilera Normalizatzeari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan ezartzen den moduan.

6.– Eskabidea aurkezteak esan nahi du berariaz eta formalki onartzen direla deialdi honen oinarrietan zehaztutako baldintzak.

7.– Eskabidearekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoan legez erarabita dagoela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko da: www.euskadi.eus/zerbitzuak/1027610

8.– Eskabideak hilabeteko epean aurkeztu behar dira, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Epez kanpo aurkeztutako eskabideak deialditik kanpo geratuko dira.

9.– Hautaketa Batzordeak aurkeztu diren proiektuak aztertuko ditu, eta bakoitzari baremoa ezarri ondoren, txosten bat egingo du ebaluazioaren emaitzarekin eta sariak emateko proposatutako proiektuak deialdia ebazteko eskumena duen organoari aurkeztuko dizkio, hau da, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailean gobernu irekiaren arloaren ardura duen Zuzendaritza dagokion Sailburuordetzari. Horrekin batera, gainera, hautagaitza guztien balorazioa ere bidaliko dio.

10.– Organo kudeatzaileak deialdia hutsik uzteko proposamena aurkeztuko du, aurkeztutako proiektuek gutxieneko puntuazioa lortzen ez badute.

11.– Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailean gobernu irekiaren arloko ardura duen Zuzendaritzari dagokion sailburuordeak ebazpena emango du «Elkarlan» sariak emateko edo deialdia hutsik uzteko. Ebazpen hori aldi berean argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko helbide honetan: www.euskadi.eus/zerbitzuak/1027610 Ebazpen hori osatu behar duten edukiek bat etorri beharko dute Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 22.3 artikuluan aurreikusitakoarekin. Horrez gain, ebazpena elektronikoki jakinaraziko zaie deialdian parte hartu duten pertsona guztiei, egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bitartez.

Hori hala izanik ere, organo kudeatzaileak beste aukera bat ere badu: interesdunei jakinarazpenen abisuak bidaltzea, eskabideetan jarri zituzten telefono mugikorretara eta helbide elektronikoa SMSak edo mezu elektronikoa bidaliz. Abisu horiek ez dute inolaz ere egindako jakinarazpenaren ondorioz izango.

12.– Deialdiaren ebazpena 2024ko abenduaren 16a baino lehen emango eta jakinaraziko da. Epe hori amaitu eta ebazpena jakinarazi ez bada, deialdia hutsik utzi dela ulertuko da.

13.– Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailean gobernu irekiaren arloko ardura duen Zuzendaritzari dagokion sailburuordeak «Elkarlan» sariak emateko edo lehiaketaren deialdia hutsik uzteko ematen duen ebazpenaren aurka, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio sail horretako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

14.– Saria emateko ebazpenean, pertsonen eta kolektiboen ahalduntzea aktibatzeke jardunbide egokiak beste eragile batzuei transferitzeko prozesua oinarritzat identifikatuko da, lurraldeko beste eremu eta espazio batzuetan aplikatzeko. Prozesu hori eskabide-inprimakian aurkeztutako proposamenaren arabera garatu behar da.

Zortzigarrena.– Saria onartzea.

1.– Pertsona juridiko sarituek idatziz eta espresuki adierazi beharko dute saria onartzen dutela, saria emateko ebazpena jakinarazi eta 3 egun balioduneko epearen barruan. Horretarako, saria onartzeko inprimaki bat izango dute eskuragarri egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalean: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

2.– Saria onartzen bada, pertsona eta kolektiboen ahalduntzea aktibatzeke jardunbide egokiak beste eragile batzuei transferitzeko formalizazio-prozesua garatu beharko da, lurraldeko beste eremu eta espazio batzuetan aplikatzeko. Saria emateko ebazpenean zehazten da.

3.– Saria ez bada onartzen aurreko paragrafoetan ezarritako baldintzetan, uko egiten zaiola ulertuko da; eta, kasu horretan, balorazio onena izan duen hurrengo proiektua aurkeztu duen hautagaitzari emango zaio saria.

4.– Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailean gobernu irekiaren arloko ardura duen Zuzendaritzari dagokion sailburuordeak ebazpena emango du, eta adieraziko du sariari uko egin zaiola eta hobekien baloratutako hurrengo proiektua aurkeztu duen hautagaitzari eman zaiola saria. Ebazpena Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko www.euskadi.eus/zerbitzuak/1027610 helbidean argitaratuko da, eta jakinarazpen elektronikoa egingo zaie saritua izan den entitateari eta deialdi honetan parte hartu duten beste hautagaitzei, bide elektronikoa erabiliz. Egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalean argitaratuko da ebazpen hori (<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>), aurreko artikuluko 14. apartatuko aurreikuspen berberekin.

5.– Saritutako entitate bakar batek ere ez badu onartzen saria, Saritutako entitate bakar batek ere ez badu onartzen saria, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailean gobernu irekiaren arloko ardura duen Zuzendaritzari dagokion sailburuordeak ebazpena emango du, deialdia hutsik gelditu dela adierazteko. Ebazpena Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko www.euskadi.eus/zerbitzuak/1027610 helbidean argitaratuko da, eta jakinarazpen elektronikoa egingo zaie deialdi honetan parte hartu duten hautagaitza guztiei, egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalean (<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>).

Bederatzigarrena.– Sariak ematea.

1.– Sariak hurrengo urteko lehen seihilekoan emango dira, ekitaldi publiko eta formal batean; ekitaldi hori, gainera, irekia izango da. Deialdian parte hartu duten pertsona juridiko guztiak zuzenean gonbidatuko dira ekitaldira; horrez gain, saritutako pertsona batek joan beharko du ekitaldi horretara, pertsona juridikoaren legezko ordezkari gisa edo izendatutako ordezkari gisa. Pertsona horrek proiektuaren nondik norakoak azaldu beharko ditu, labur-labur. Legezko ordezkariak duen inork edo hark izendatutako inork ezin badu sari-banaketara joan arrazoi justifikatuak direla medio, ekitaldia egin baino 10 lanegun lehenago ordezkari bat izendatu beharko du, haren izenean saria jaso dezan. Ordezkatzen duen horren identifikazio-datuak Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailean gobernu irekiaren arloko ardura duen Zuzendaritzari dagokion sailburuordeari bidali beharko dizkio jatorrizko ordezkariak, bide elektronikoa erabilita.

2.– Saritutako proiektuaren legezko ordezkaria edo haren ordezkari izendatutako pertsona sari-banaketara joaten ez bada, sariari uko egin zaiola esan nahiko du eta deialdia hutsik geratuko da. Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailean gobernu irekiaren arloko ardura duen Zuzendaritzari dagokion sailburuordearen ebazpen baten bidez adieraziko da deialdia hutsik geratu dela.

Hamargarrena.– Jardunbide egokien transferentzia formalizatzeko prozesua.

1.– Pertsonen eta kolektiboen ahalduz aktibatzen jardunbide egokiak beste eragile batzuei transferitzeko formalizazio-prozesua –lurraldeko beste eremu eta espazio batzuetan aplikatzeko– garatzeko konpromisoa (saria emateko ebazpenean zehazten dena) betetzen ez bada, hari uko egiten zaiola ulertuko da. Kasu horretan, jasotako zenbateko osoa itzuliko da (9.000 euro).

2.– Jardunbide egokien transferentzia formalizatzeko prozesuaren justifikazioa sei hilabeteko epean egin beharko da, sariak ematen direnetik zenbatzen hasita. Horretarako, memoria bat egin eta hilabeteko epean bidali beharko da, eta bertan identifikatuko da zertan datzan jardunbide egokia, arrakasta-baldintzak, ekarpenak (emaitzak eta eraginak), mugak, beste testuinguru batzuetan aplikatzeko bideragarritasuna... Horrez gain, memorian lurraldeko beste eremu edo espazio batzuetara transferitzeko materialki egindako jardueren edukia garatuko da: material dokumentalak (gidak), bideografikoak edo teknologikoak; garatutako kontzeptuak eta materialak hedatzeko eta zabaltzeko partaidetza-prozesuak, eta abar. Transferentzia-prozesuan aritzeagatik 3.000 euroko saria emateak ez du esan nahi zenbateko hori gastu-faktura gisa justifikatu behar denik, baizik eta transferentzia-produktuak zehazteko, gauzatzeko eta zabaltzeko benetan gauzatutako jardueretan egin beharko da.

Hamaikagarrena.– Datuen babesari buruzko oinarritzko informazioa.

Datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta izen hau duen tratamendu-jardueran sartuko dira: Laguntzak eta sariak.

- Arduraduna: Gobernu Irekiaren Zuzendaritza, gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Saila.

- Helburua: «Elkarlan» sariak kudeatzea eta ebaztea.

- Legitimazioa: tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.

- Hartzaileak: Euskal Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria.

- Eskubideak: eskubidea duzu datuak irispidean izateko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere (www.euskadi.eus/zerbitzuak/10842/).

- Informazio gehigarria: gure web-orrian kontsulta dezakezu datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua: www.euskadi.eus/clausulas-informativas/web01-sedepd/es/transparencia/153000-capas-es.shtml

Araudia:

- Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES).

- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673).